

Euskal ekonomiaren bilakaera 2017IVH

2018ko martxoaren 5a



kutxabank
empresas

1

Laburpena

2

Euskal ekonomia

BPGd

Barne eskaria

Kanpo sektorea

Lan-merkatua

Inflazioa

Sektore publikoa

Finantza-sektorea

Adierazleak

3

Ingurunea

4

Aurreikuspenak

2. 17IVHn, euskal ekonomiak hazkundearekin eta desoreken zuzenketarekin itxi du ekitaldia

17IVHn, Euskal ekonomiaren **BPGd**-a % 3,0 hazi da (u/u), **2017**an izandako portaera onaren ostean, % 2,9ko hazkundearekin. Bada, ingurune europarraren gainetik (Eurogunea eta EB28) geratu da, eta ekonomia espainiarraren parean (% 3,1). Hala ere, 2018an hazkundearen erritmoak moteltzera egingo duela uste da; aurreikuspen ofiziala % 2,5ean kokatzen da.

Euskal ekonomiak hiruhilekoan izan duen bilakaera positiboak **barne eskariaren** dinamismoa du oinarri (**+% 3,1**), **Kapitalaren Eratze Gordinaren (+% 3,8)** eta **Kontsumo Pribatuaren (+% 2,8)** laguntzarekin. Kanpo sektorea oso dinamikoa eta orekatua izan da, Esportazioetan (% 4,8) zein Inportazioetan (% 4,8), ekarpen pixka bat murriztailearekin, iazko hiruhileko beraren antzekoa.

Igoera hori **Industriaren (+% 3,7)** eta **Eraikuntzaren (+% 3,1) susperraldiak** eragin du, iazko datuak gainditzera. Izan ere, gehiago eraiki da eta lizitazio ofizialak ere ugariagoak izan dira. Zerbitzuek, bestalde, gora egiten jarraitzen dute (% 2,9), nahiz eta dezelerazio arinean.


Kontu Ekonomikoen arabera, **lan-okupazioa 943.000 enplegutik** gorakoa izan da **17IVHn**, % 2 hazi ondoren. Termino absolutuetan, nabarmena izan da hazkundera, duela urtebete baino 18.402 langile gehiagorekin. Zerbitzuen sektoreak 14.676 enplegu berri sortu ditu, Industriak 3.223 pertsona gehiagori eman die lana eta Eraikuntzak beste 922 langileri. **PR**Aren arabera, 17IVHn langabetuen kopurua 127.000raino jaitsi zen, hau da **langabezia-tasa % 11,1ekoa** izan zen. **GS**ren afiliazioa 935.931 pertsonakoa izan zen urtarrilean, iaz baino 19.829 gehiago, % 2,2 hazi ondoren.

Urtarrileko prezioen indizea % **0,5**eraino jaitsi zen eta **azpiko inflazioa % 0,6koa** izan zen, **biak beheranzko joerarekin**. Bada, datu horiek **KPIa baldintzatu zuten**. Prezioen uzkurdura sektore guztietara hedatu zen; hala ere, otsaileko datuek % 1,1erainoko igoera bat aurreikusten dute Estatu osorako, 2017an izan zuten portaerarekin bat etorriz.

Euskal Herriko abenduko **zerga-bilketak** marka guztiak hautsi zituen, aurreikuspenak gaindituz, **14.473 M €** eta % **11,8**ko hazkundearekin. 2018ko urtarrileko datuak ere bide beretik doaz, % 13ko hazkundearekin. **EAEko zor-maila** BPGd-aren % **14,7**raino jaitsi zen, eta finantzaketa publikoaren superabita 125 M eurokoa izan zen 17IIIHko itxieran.


2. Hazkunde jarraitua

EAEko BPGd-aren bariazio-tasa (%)



17IVHn, euskal ekonomiaren **BPGd**-a % 3,0 hazi da (u/u), **urte osoan izan duen bilakaera ona (% 2,9)** berretsiz. Bada, ingurune europarraren gainetik (Eurogunea eta EB28) geratu da, eta ekonomia espainiarraren parean (% 3,1). 2018an hazkundearen erritmoak moteltzera egingo duela uste da; aurreikuspen ofiziala % 2,5ean kokatzen da.


2. EAE: Barne eskaria 2017ko euskal ekonomiaren akuilu



Iturria: Eustat, gure datuak

17IVHn euskal ekonomiak izan duen bilakaera positiboak (**BPGd +% 3**) **barne eskariaren** dinamismoa du oinarri (**+% 3,1**), **Kapitalaren Eratze Gordinaren (+% 3,8)** eta **Kontsumo Pribatuaren (+% 2,8)** laguntzarekin. Halaber, kanpo sektorearen dinamismoak gora egin du, Esportazioetan (% 4,8) zein Inportazioetan (% 4,8), baina **modu orekatuan**. Horregatik, hazkundeari egindako ekarpen garbia pixka bat murriztailea izan da, iazko hiruhileko beraren antzekoa.


2. Industria eta Eraikuntza hazkundearen eragileak



Eustat, gure datuak

Eskaintzari begira, **Industriaren** dinamismo handiak (+% 3,7) eta **Eraikuntzaren** bilakaera positiboak (+% 3,1) hazkundeari lagundu die. Izan ere, eraikuntza sektorearen **susperraldia nabarmena** izan da iazko hazkunde erritmoekin alderatuta, gehiago eraiki delako eta lizitazio ofizialak ere ugariagoak izan direlako. **Zerbitzuen** sektoreak ere gorantz egin du (% 2,9).

2. Inbertsioaren eta kontsumoaren dinamismo handia



| PIB Trimestral (demanda) | 2016 | | 2017 | | | |
|--|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
| | III | IV | I | II | III | IV |
| GASTO EN CONSUMO FINAL | 2,7 | 2,9 | 2,9 | 2,6 | 2,9 | 2,8 |
| -Gasto en consumo final de los hogares e ISFLSH | 3,1 | 2,9 | 3,0 | 3,0 | 3,0 | 2,8 |
| -Gasto en consumo final de las AAPP | 0,8 | 3,0 | 2,6 | 1,2 | 2,7 | 2,9 |
| FORMACIÓN BRUTA DE CAPITAL | 3,1 | 3,2 | 3,0 | 3,2 | 3,9 | 3,8 |
| -Formación Bruta de Capital Fijo en Bienes de Equipo | 6,1 | 6,6 | 4,2 | 5,4 | 4,5 | 4,6 |
| -Resto de Formación Bruta de Capital | 1,6 | 1,6 | 2,2 | 1,9 | 3,5 | 3,4 |
| DEMANDA INTERNA | 2,7 | 3,0 | 2,9 | 2,7 | 3,1 | 3,1 |
| EXPORTACIONES DE BIENES Y SERVICIOS | 1,6 | 0,3 | 1,5 | 1,9 | 3,7 | 4,8 |
| IMPORTACIONES DE BIENES Y SERVICIOS | 1,3 | 0,4 | 1,9 | 1,8 | 3,9 | 4,8 |
| PRODUCTO INTERIOR BRUTO a precios de mercado | 3,0 | 2,9 | 2,8 | 2,9 | 3,0 | 3,0 |

Aipatzekoa da **barne eskariak** izan duen portaera, % **3,1**eraino igo baita; hau da iazko hiruhileko berean baino 0,1 op gehiago. Eragileek berreskuratutako konfiantzak inbertsioen goraldia ekarri du berekin, eta, ondorioz, **Kapitalaren Eratze Gordina % 3,8** hazi da eta ekipo-ondasunen dinamismoak ere gora egin du. Halaber, kanpo sektorea modu orekatuan hazi da, bai esportazioetan bai inportazioetan.



2. Kanpo sektorearen dinamismoa gora



Iturria: Eustat

Merkataritzaren eta munduko ekonomiaren martxa onaren eta aurreikuspen positiboen ondorioz, **kanpo sektorearen dinamismoak gora** egin du, ekoizpen-sareak kanpora zabaltzeko egin duen ahaleginaren ondotik. **Hazkundera**, Esportazioetan zein Inportazioetan, **modu orekatuan** gertatu da, % 4,8an bi kasuetan. Ondorioz, kanpo sektoreak euskal ekonomian duen joera pixka bat aurkakoa mantendu da.


2. Industria eta Eraikuntza gorantz



Iturria: Eustat

17IVHn, eta iazko gorabeheren ostean, agerikoa izan da **Industriak (% 3,7)** ekitaldi osoan izan duen susperraldia, baita **Eraikuntzak** ere (% **3,1**). Lehenengo kasuan, gainera, argi eta garbi gaintu du BPGd-aren hazkunde erantsia. **Zerbitzuek**, bestalde, bilakaera jarraitua izan dute, % 2,9ko igoerarekin, nahiz eta dezelerazio arinean.


2. Zerbitzuetan oinarritutako hazkundera




Iturria: Eustat, gure datuak

Industriaren dinamismoak gora egin duen arren, **Zerbitzuena** da (% 61,5eko pisu erlatiboarekin eta % 2,9ko hazkunderarekin) **17IVHn euskal BPGd-aren hazkundera gehien lagundu** duen sektorea, **1,8 op-rekin**. **Industriak**, BPGd-aren gaintetik hazi denez, **pisu erlatiboa irabazi du**, guztizkoaren % 22,6an kokatuz, eta, horrenbestez, euskal politika ekonomikoak helburutzat daukan % 25etik gero eta gertuago dago. Industriaren ekarpena **0,8 op-raino** hazi da (0,5 op 17IIIHn), sektorearen gero eta protagonismo handiagoaren adierazgarri. Ildo beretik, nahiz eta modu apalagoan, **Eraikuntza**, % 5,7ko partaidetzarekin, **0,2 op** igo da (0,1 op 17IIIHn).

2. Lan-merkatuaren bilakaera positiboa



16IVHn baino 18.402 langile gehiago.




Iturria: Kontu ekonomikoak. Eustat.


Kontu Ekonomikoen arabera, **17IVHn lan-okupazioak 943.000 enpleguak** gainditu ditu, % 2 hazi ondoren. Termino absolutuetan, nabarmena izan da hazkundera, duela urtebete baino 18.402 langile gehiagorekin. Zerbitzuen sektoreak 14.676 enplegu berri sortu ditu, Industriak 3.223 pertsona gehiagori eman die lana eta Eraikuntzak beste 922 langileri. **PR**aren arabera, 17IVHn langabetuen kopurua 127.000raino jaitسي zen, hau da **langabezia-tasa % 11,1ekoa** izan zen. **GS**ren afiliazioa 935,931 pertsonakoa izan zen urtarrilean, iaz baino 19.829 gehiago, % 2,2 hazi ondoren.

2. Prezioen moderazioa eta egonkortasuna azpiko inflazioan

Inflazioa sektoreka



EAE: Inflazioaren bilakaera




Iturria: Ikerbide


Inflazioaren azken datuaren arabera, prezioen indizea % **0,5**eraino jaitsi zen **urtarrilean**, eta gauza bera baina maila handiagoan gertatu zen **azpikoaren inflazioarekin (% 0,6), biak beheranzko joerarekin**. Iazko hilabete berarekin alderatuta, prezioen presioa txikiagoa izan zen EAEn, eta joera hori ia sektore guztietara hedatu zen. Otsailean, hala ere, inflazioa % 1,1eraino igo zen estatu osoan, 2017ko joerarekin bat eginez.

2. Sektore publikoa: zerga-bilketa *in crescendo*

Deuda de la CAE según PDE



CAE: Capacidad (+) o Necesidad (-) de Financiación



EAEn, 2017ko abendura arteko **zerga-bilketak** marka guztiak hautsi zituen, aurreikuspenak gaindituz, **14.473M €** eta **% 11,8**ko hazkundearekin. 2018ko urtarrileko datuak ere bide beretik doaz, % 13ko hazkundearekin.

Zuzeneko zerga betebeharren aldetik bildutako guztizko zenbatekotik 5.132 M € PFEZri dagozkio eta 1.111 euro Sozietateen Gaineko Zergari. BEZarekin 6.000 M euro inguru bildu dira, eta 1.272 M € hidrokarburoen gaineko zergarekin.


EAEko **zor-maila % 14,7**raino jaitsi da.

Finantzaketa gaitasunari begira, euskal sektore publikoak 125 M euroko superabita izan zuen 17IIIHko itxieran.


2. Gordailu pribatuaren susperraldia, baina kredituen amortizazioak eragiketa berriak baino gehiago dira oraindik

Txostenaren itxieran BdEk argitaratutako azken datuak: 2017ko iraila

S. Pribatuaren kredituak



S. Pribatuaren gordailuak




Kreditu-eragiketa berri gehiago kontratatu badira ere, amortizazioen kopurua handiagoa da oraindik, eta, horrenbestez, **sektore pribatuaren** guztizko saldoak **behera egiten jarraitzen du: -% 3,1 EAEn eta -% 2,4 Spainian, hurrenez hurren.**

Sektore pribatuaren gordailuen guztizko saldoak, bestalde, **% 1 egin du gora EAEn eta % 2,3 Spainian.**

2. Gordailu eta kreditu pribatuen hazkunde positiboa

Txostenaren itxieran BdEk argitaratutako azken datuak: 2017ko iraila



S. Pribatuaren Kredituen eta Gordailuen bariazioaren %



Iturria: BdE

Irailean, **sektore pribatuaren gordailuen saldoa (73.985 M €) kreditu pribatuen saldoaren gainera zegoen (63.686 M €)**, 10.300 M € gainera hain zuzen ere. Kreditu pribatuek gordailu pribatuetan duten pisua % 86an kokatu da EAEn (% 102,8 Espainian).


2. Etxebizitza-hipotekak: atsedenaldian



Iturria: INE

Abenduan, etxebizitza-hipoteken kontratazioak beheranzko joera izan du, bai EAEn (-% 16), beherakada handiarekin, baita gainerako merkatuan ere (% 2,6), positiboa izan arren hazkunde bolumen txikiagoa izan duena. Eragiketa-kopuruaren aldetik ere joera berdintsua izan da.

2. Berankortasuna. Susperraldiaren bidean, baina krisiaren aurreko mailetatik urrun



2017ko abenduko EFCen OSR berankortasun-tasa % 7,79an kokatu da; urteko jaitiera, beraz, - 1,9 op-koa izan da eta -0,29koa azken hilean.





Finantza-sistemaren OSR kredituaren estaldura-tasa, bestalde, azken hilean -0,13 pp murriztu da, eta % 60,30ean dago orain.

2. Euskal ekonomia uneko adierazleen arabera...


% Var.

| <u>MENSUALES</u> | dic-16 | jun-17 | jul-17 | ago-17 | sep-17 | oct-17 | nov-17 | dic-17 |
|---|--------|--------|--------|--------|--------|--------|--------|--------|
| IPI (Eustat) | 4,4 | 1,1 | 0,8 | 5,1 | 3,6 | 2,6 | 2,4 | 6,3 |
| Indice Comercio Minorista (INE) | 1,6 | 3,8 | 1,6 | 2,7 | 3,6 | -0,8 | 3,1 | 0,3 |
| Consumo de gasolina , gasóleo y fuelóleo™ (Cores) | 4,2 | 2,0 | 1,7 | 6,4 | 5,1 | 10,3 | 6,9 | 6,7 |
| Matriculación de turismos (Ikerbide 1.25.3) | 9,0 | 0,5 | -5,1 | 11,9 | 0,0 | 21,1 | 10,1 | 1,8 |
| Hipotecas. Número (INE) | 14,5 | -5,4 | 37,1 | 28,4 | -2,7 | 9,2 | -3,9 | |
| Hipotecas. Importe (INE) | -4,1 | -7,1 | 25,1 | 20,1 | 2,1 | 15,8 | -0,9 | |
| Compraventa viviendas | 5,3 | 9,0 | 2,1 | 22,8 | 46,8 | -5,8 | -1,9 | |
| Recaudación DDF: Total impuestos (GV) | 2,7 | 9,7 | 15,6 | 13,8 | 10,1 | 10,6 | 10,5 | 11,8 |

[<< Volver al Índice](#)



3. Euskal ekonomia. 2018rako aurreikuspenak



Iturria: INE, Eustat eta gure datuak

Euskal ekonomia modu egonkorrean hazi da 2017an, eta BPGd-ak % 3 egin du gora, espainiar ekonomiak izan duen hazkundera berdinduz (% 3,1). Hala ere, 2018ko ekitaldian hazkunderak moteltzera egingo du, % 2,4an kokatuz (espainiar ekonomiarako aurreikusita dagoena: % 2,6).

3. Euskal ekonomia. 2018rako aurreikuspenak

| Euskadi | PIB | | |
|-----------------------------|------------|-------------|-------------|
| Panel de Previsiones | | 2017 | 2018 |
| Confebask | dic.-17 | 3,0 | 2,9 |
| Funcas | nov.-17 | 3,0 | 2,7 |
| Hispalink (VAB) | dic.-17 | 3,0 | 2,2 |
| BBVA | nov.-17 | 2,7 | 2,9 |
| CEPREDE | feb.-18 | 2,7 | 2,4 |
| Gobierno Vasco | feb.-18 | 2,9 | 2,5 |
| Media | | 2,9 | 2,6 |
| <i>Máximo</i> | | <i>3,0</i> | <i>2,9</i> |
| <i>Mínimo</i> | | <i>2,7</i> | <i>2,2</i> |

4. Ingurunea: aurreikuspenek hobera egin dute ikuspegi baikorrago baten aurrean

NDFren aurreikuspenak 2018ko urtarrilerako

| Panorama de las proyecciones de Perspectivas de la economía | | | | |
|---|--------|------|--------------|------|
| | ene-18 | | Proyecciones | |
| | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
| Producto Mundial | 3,2 | 3,7 | 3,9 | 3,9 |
| Economías avanzadas | 1,7 | 2,3 | 2,3 | 2,2 |
| Estados Unidos | 1,5 | 2,3 | 2,7 | 2,5 |
| Zona del euro | 1,8 | 2,4 | 2,2 | 2,0 |
| Alemania | 1,9 | 2,5 | 2,3 | 2,0 |
| Francia | 1,2 | 1,8 | 1,9 | 1,9 |
| Italia | 0,9 | 1,6 | 1,4 | 1,1 |
| España | 3,3 | 3,1 | 2,4 | 2,1 |
| Japón | 0,9 | 1,8 | 1,2 | 0,9 |
| Reino Unido | 1,9 | 1,7 | 1,5 | 1,5 |
| Economías emergentes y en desarrollo | 4,4 | 4,7 | 4,9 | 5,0 |
| Volumen del comercio mundial (b y s) | 2,5 | 4,7 | 4,6 | 4,4 |
| Petróleo | -15,7 | 23,1 | 11,7 | -4,3 |
| Precios al consumidor | | | | |
| <i>Avanzadas</i> | 0,8 | 1,7 | 1,9 | 2,1 |
| <i>Emergentes y en desarrollo</i> | 4,3 | 4,1 | 4,5 | 4,3 |

[NDFren aurreikuspenak 2018ko urtarrilerako](#)

2018ko urtarrilean berrikusitako NDFren aurreikuspenen arabera, hazkunde ekonomikoak sendo jarraitzen du, **2017an** munduko ekonomia % **3,7** hazi ondoren, aurreikuspenak pixka bat gaindituz. Halaber, aipatzekoa da Europa eta Asiaren portaera, aurreikuspenak gainditu baitituzte bi herrialdeek. 2018ari begira, baikortasun giroa da nagusi, ekitaldi horretarako aurreikuspenak berrikusi ondoren, hazkundera % 3,9an kokatu delako, bai eta erritmo hedakor hori 2019ra arte luzatu ere. Gainera, horri guztiari AEBk iragarri berri dituen zerga-arloko neurriei lotutako eragin positiboak gehitu behar zaizkio.

4. Alemania, EBren akuilu

- **Munduko hazkundearen dezelerazio txikia 17IVHn**, eta BPGd-aren % 2,6rainoko hazkundera (u/u) ELGEn (17IIIHn % 2,8). Alemania izan da zazpi ekonomia nagusien artean gehien hazi dena (% 2,9), eta Ingalaterra, berriz, indar txikienarekin igo dena (% 1,5).

BPGd. Ald % ELGE (u/u)

| | 2015 | 2016 | | | | 2017 | | | |
|----------------|------|------|-----|-----|-----|------|-----|-----|-----|
| | Q4 | Q1 | Q2 | Q3 | Q4 | Q1 | Q2 | Q3 | Q4 |
| OECD-Total | 2.2 | 1.8 | 1.7 | 1.6 | 2.0 | 2.2 | 2.5 | 2.8 | 2.6 |
| G20 | 3.3 | 3.1 | 3.1 | 3.0 | 3.3 | 3.4 | 3.7 | 3.9 | .. |
| European Union | 2.2 | 1.9 | 1.9 | 1.9 | 2.0 | 2.2 | 2.5 | 2.8 | 2.6 |
| Euro area | 2.0 | 1.7 | 1.8 | 1.7 | 1.9 | 2.1 | 2.4 | 2.8 | 2.7 |
| Major Seven | 1.6 | 1.3 | 1.3 | 1.4 | 1.7 | 1.8 | 2.1 | 2.2 | 2.3 |
| Canada | 0.3 | 1.1 | 1.0 | 1.5 | 2.0 | 2.3 | 3.6 | 3.0 | .. |
| France | 1.0 | 1.2 | 1.2 | 0.9 | 1.1 | 1.2 | 1.9 | 2.3 | 2.4 |
| Germany | 1.3 | 1.8 | 1.9 | 1.9 | 1.9 | 2.1 | 2.3 | 2.7 | 2.9 |
| Italy | 1.2 | 1.3 | 1.0 | 0.9 | 1.0 | 1.3 | 1.5 | 1.7 | 1.6 |
| Japan | 1.3 | 0.5 | 0.8 | 0.9 | 1.5 | 1.3 | 1.6 | 1.9 | 1.6 |
| United Kingdom | 2.1 | 1.9 | 1.8 | 2.0 | 2.0 | 2.1 | 1.9 | 1.7 | 1.5 |
| United States | 2.0 | 1.4 | 1.2 | 1.5 | 1.8 | 2.0 | 2.2 | 2.3 | 2.5 |

.. : Latest quarter not yet available.

Iturria: ELGE

Espainiar ekonomia


Espainiako ekonomiak Europako ekonomien lehen postuan jarraitzen du BPGd-aren hazkunderari dagokionez (% 3,1). Eskari nazionala da horren erantzule, 3,2 op ekarri baitizkio ekonomiari. Halere, horrek esan nahi du kanpo eskariak 0,1 op egin duela atzera. Horren harira, azpimarratzekoak dira **familien eskariaren** hazkundera (% 2,5) eta **Kapitalaren Eratze Gordinaren** indarra (% 5,6). Fenomeno horren atzean, eragileek berreskuratutako konfiantza, interes-tasen baldintza onuragarriak eta krisi garaiko inbertsioen lehortea daude, ekoizpen egiturak berritu eta modernizatzeko beharra areagotzen baitute.

4. Eurogunea: gorantz

| Zona Euro. Previsiones de crecimiento económico comparado 2016- | | | |
|---|-----------------|------|-------|
| Crecimiento PIB (previsión; a/a) | | | |
| | Fecha previsión | 2017 | 2018P |
| Previsiones BCE (punto medio) | feb-18 | 2,5 | 2,5 |
| OCDE | nov-17 | 2,4 | 2,2 |
| Comisión UE | feb-18 | 2,4 | 2,3 |
| FMI | ene-18 | 2,4 | 2,2 |
| Consensus | feb-18 | | 2,3 |
| Consensus Economics, ECB, EU Commission, IMF, OECD | | | |
| Fuente Citivelocity. Febrero 2018 | | | |

BPGd-aren hazkundera Spainian


BPGd: % 3,1 (u/u) 2017IVHn



Euroguneko ekonomiak gora egin du BPGd-aren % 2,5eko hazkunderarekin, handiena krisi ekonomikoaz geroztik, AEB eta Japonia gaindituz. Hori guztia, gainera, Brexitarekin lotutako zalantzak, hauteskunderen emaitzak eta *America First* lelopean AEBk iragarri dituen neurri protekzionistak gorabehera gertatu da. Alemania eta Frantzia izan dira EBren eragile nagusiak.

Espainiako BPGd-a % 3,1 hazi da, herrialdearen hazkunde ekonomiko handiaren adierazgarri, eta EPAren arabera, enpleguak gora egin du oro har 2017an, baina 17IVHn atsedena bat hartu du, susperraldi baten ondoren. Izan ere, enplegu-tasa % 2,65 igo zen (490.300 pertsona), eta, beraz, okupazio-tasa % 48,7koa izan zen. Langabezia-tasa, aitzitik, % 16,5eraino jaitsi zen (% 18,6 2016an). Gizarte Segurantzaren urtarrileko afiliazio datua % 3,4 hazi zen, iazko hil beraren ondoan.

4. Aurreikuspenak. Espainia- 2107IVH.



Iturria:Funcas

2018rako BPGd-aren hazkundearen batez besteko aurreikuspena (% 2,6) ez da aldatu, ezta bere osagaiena ere. Bultzada hori eskari nazionaletik etorriko da hein handi batean (2,2 op), eta kanpoko saldoa positiboa izango da (0,4 op).

Espainiako inflazioaren urteko batez besteko tasak gora egin du 2017an, -% 0,2tik % 2ra. Energiaren prezioen igoerak (Brent barrila % 25 igo zen), euroaren balio handitzeak hein batean orekatu duena, prezioak gorantz bultzatu ditu.

Defizit publikoak, 2017a % 3,1eko BPGd-arekin itxi ostean, aurrez ezarritako helburuak bete ditu, nahiz eta 2018an baliteke bolada hori berriro haustea, defizita % 2,4an baloratu baita, helburua baino pare bat hamarren gorago.

4. Aurreikuspenen panela. Espainia

| ene-18 | | | | | | |
|-------------------------|------------|------------|------------|------------|-------------|-------------|
| España | | | | | | |
| Panel de Previsiones | PIB | | IPC | | PARO (EPA) | |
| | 2017 | 2018 | 2017 | 2018 | 2017 | 2018 |
| AFI | 3,1 | 2,8 | 2,0 | 1,8 | 17,1 | 15,1 |
| BBVA | 3,1 | 2,5 | 1,9 | 1,4 | 17,0 | 15,5 |
| Bankia | 3,2 | 3,0 | 2,0 | 1,8 | 17,1 | 15,0 |
| Caixabank | 3,1 | 2,4 | 2,0 | 1,6 | 17,1 | 15,4 |
| CEEM | 3,1 | 2,5 | 2,0 | 1,8 | 17,0 | 14,9 |
| CEPREDE | 3,1 | 2,5 | 2,0 | 1,6 | 17,1 | 15,5 |
| CEOE | 3,1 | 2,5 | 2,0 | 1,1 | 17,1 | 15,0 |
| Funcas | 3,1 | 2,6 | 1,9 | 1,6 | 17,1 | 15,1 |
| ICAE-UCM | 3,1 | 2,5 | 1,9 | 1,3 | 17,2 | 15,5 |
| IEE | 3,2 | 2,7 | 1,9 | 1,6 | 17,2 | 15,5 |
| Intermoney | 3,1 | 2,6 | 1,9 | 1,6 | 17,2 | 15,2 |
| CONSENSO (media) | 3,1 | 2,6 | 2,0 | 1,6 | 17,1 | 15,3 |
| Máximo | 3,2 | 3,0 | 2,1 | 1,8 | 17,3 | 15,6 |
| Mínimo | 3,0 | 2,4 | 1,9 | 1,1 | 17,0 | 14,9 |
| PRO MEMORIA | | | | | | |
| Gobierno (octubre 17) | 3,1 | 2,3 | - | - | 17,2 | 15,5 |
| BdE (diciembre 17) | 3,1 | 2,4 | 2,0 | 1,5 | 17,0 | 14,9 |
| CE (noviembre 17) | 3,1 | 2,5 | 2,0 | 1,4 | 17,4 | 15,6 |
| FMI (octubre 17) | 3,1 | 2,5 | 2,0 | 1,5 | 17,1 | 15,6 |
| OCDE (noviembre 17) | 3,1 | 2,3 | 2,0 | 1,3 | 17,2 | 15,4 |

Fuente: funcas

Euskal ekonomiaren bilakaera 2017IVH

2018ko martxoaren 5a



kutxabank
empresas